

# HEZKUNTZA-PROGRAMAK

ARABAKO IKASTETXEI ZUZENDUA

*Vital*

FUNDAZIOA

# AURKIBIDEA

01

## HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA/EDO SEXUALA

1.1. ALDATZEN

1.2. MIAKETAK ARABA

1.3. ZER IKUSI, HURA EGIN

1.4. DENBORAREN LAPURRAK

1.5. GAZTEEN ARTEAN

1.6. ROMPIENDO LA LEY DEL SILENCIO

1.7. BIRIBILTZEN

1.8. BETIRAKO

02

## MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN IRAKASTEA

2.1. CAMINUS

2.2. AURRERA BEGIRA

2.3. AULKIA-BIDEZIDOR IRISGARRIAK

2.4. ZERUERTZ

03

## HEZKUNTZA-DIGITALA

3.1. HAR EZAZU KONTROLA

3.2. RESET ESKOLA

04

## INGURUMENA

4.1. GELA BERDEAK

4.2. COSMIUN

4.3. ESPAZIOA

05

## OSASUNA

5.1. GOSARI OSASUNGARRIAK

06

## EKINTZAILETZA

6.1. IKAS EKITEN

6.2. EKITEN IKASTEN



# HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA/EDO SEXUALA



945 064 367/945 064 355



actividades@fundacionvital.eus



# HEZKUNTZA SEXUAL-AFEKTIBOA

## ALDATZEN

### HELBURUA

Haurtzaroan sexualitate osasuntsua eraikitzearen inguruko hezkuntza-lana egitea, eskola komunitate osoa inplikatur. Publizitateak, sare sozialak erabiltzeko moduak eta pornografiarako sarbidea txikitatik izateak aro berantiarragoei dagozkien bizipenak haurtzarora aurreratu daitezela eragin dute.


### GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen Hezkuntzako 5. mailako, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailako eta irakasleak.

\*Familientzako prestakuntza kontsultatu

### JARDUTEKO MODUA

Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat, bi orduko bi saio  
DBHko 1. eta 3. mailakoentzat, bi orduko hiru saio  
Irakasleen prestakuntzarako, bi orduko hiru saio.  
Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

## GENERO-BERDINTASUNA ETA SEXU-ANIZTASUNA MIAKETAK ARABA

### HELBURUA


Tailerren bidez, genero-berdintasuna eta sexu-dibertsitatea sustatzen ditu kulturarteko inguruneetan. Tailer horiek genero-ikuspegia aplikatzen dute, binarismoaz gain beste aukera batzuk ere erakusten dituzte eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizten ditzute, nork bere sexualitatea askatasunean bizi dezan (LGTBIQ+ pertsonak eta arrazializatuek ere bai).

### GOMENDATUTAKO ADINA

Ikasle guztientzat, tailer bakoitza hezkuntza-etapa bakoitzera egokituz.

### JARDUTEKO MODUA

Tailerrek lau orduko iraupena dute. Tailer horien kostua 30€/ h-koa izango da ikastetxe bakoitzerako, eta faktura bidez ordainduko zaio zuzenean elkarteari. Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

## ZER IKUSI, HURA EGIN

### HELBURUA

Nerabe eta gazteen erresilientzia eta pentsamendu kritikoa indartzeko diseinatuta dago tailerra, informazio fidagarri eta kontrastatua oinarrituta, euren ongizate errealean lagunduko duten erabakiak hartzen laguntzeko. Gelditzeko, behatzeko eta euren erabakiak nola hartzen ari diren hausnartzeko espazio bat eskaintzen die ikasleei, zein baloretatik abiatzen diren erabakiak hartzeko eta kontsumitzen dituzten edukiak zein eragin duten euren oreka emozionalean.

### GOMENDATUTAKO ADINA

DBHko 2. eta 3. maila, 4. maila, batxilergoa, LH eta graduak

### JARDUTEKO MODUA

Aurrez aurreko saio bi ditu tailerrak. Saio horietan, gamifikatutako metodologia bat aplikatzen da, ikaskuntza joko bihurtuz. Eduki bisual, eguneratu eta hurbilen bidez, ikasleen arreta erakartzen da eta hausnarketa sustatzen da. Ikasleek kontsumitu ohi duten edukiarekin lotutako galderak eta informazioa planteatzen dira. Saio bakoitza egungo gaietara eta ikastetxearen behar zehatzetara egokitzen da. Tailerrak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

## DENBORAREN LAPURRAK

### HELBURUA



Tailer hauen helburua haur eta nerabeengan pentsamendu kritikoa garatzea da, erabaki informatuak eta kontzienteak hartu ahal izan ditzaten. Ondoeza sor diezaieketen egoera digitalak identifikatzen laguntzen zaie, hauteman gabe. Tailerren bidez, denboraren erabilerari, eduki digitalen inpaktuari eta arreta nori eskaintzen dioten hausnartzeko ahalegina egiten da.

### GOMENDATUTAKO ADINA

DLHko 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat

### JARDUTEKO MODUA

Aurrez aurreko saio bi ditu tailerrak. Saio horietan, gamifikatutako metodologia bat aplikatzen da, ikaskuntza joko bihurtuz. Eduki bisual, eguneratu eta hurbilen bidez, ikasleen arreta erakartzen da eta hausnarketa sustatzen da. Ikasleek kontsumitu ohi duten edukiarekin lotutako galderak eta informazioa planteatzen dira. Saio bakoitza egungo gaietara eta ikastetxearen behar zehatzetara egokitzen da. Tailerrak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

## HIESA ETA SEXUALITATEA GELETAN GAZTEEN ARTEAN

### HELBURUA


Programa honek sexualitateari, GIBak eragindako infekzioari eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuei buruzko informazio zehatza eskaintzen die gazteei, sexu-harremanetan jarrera eta jokabide osasungarriak garatu daitezela sustatzeko, GIBari aurrea hartzeko funtsezko neurri baitira.

### GOMENDATUTAKO ADINA

14 eta 19 urte bitarteko ikasleentzat.

### JARDUTEKO MODUA

Hitzaldi-eztabaiden eta lan-tailerren bidez ikastetxeetan, Sidálava elkartearen zuzendaritzapean, gaztelaniaz edo euskaraz, hiesa prebenitzeko eta kutsatutako pertsonetikiko justifikaziorik gabeko beldurra ezabatzeko, haiekiko errespetua sustatuz.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

## ROMPIENDO LA LEY DEL SILENCIO

### HELBURUA

Ikastetxeetako eskola-jazarpena desagerraraztea eta jazarpena jasaten duten pertsonen itxaropen-mezua helaraztea, Iñaki Zubizarretak emandako hitzaldien bidez. Esperientzia handia du alor horretan, eta, ondorioz, hitzaldia eraginkorra eta dinamikoa da.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik gorako ikasleei, irakasleei eta familiei zuzendutako programa.

### JARDUTEKO MODUA

Ordu eta erdiko hitzaldiak, bullying-a jasan zuen Iñaki Zubizarretaren esperientzia zuzenean aztertzeko. Saskibaloiko jokalaria profesionala, Iñakik bere istorioa kontatzen du berriro gerta ez dadin, eta horrelako kasuak ezagutzen direnean ez isiltzeko gonbidapena egiten du. Hitzaldiak gaztelaniaz ematen dira.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

## BIRIBILTZEN

### HELBURUA

Taldeak, gatazkak eta emozioak kudeatzeko tresnak ezagutzea eta eskuratzea.

### GOMENDATUTAKO ADINA


Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 3. mailatik aurrerako ikasle eta irakasleentzat.

### JARDUTEKO MODUA

3 tailer mota:

- Irakasleentzako prestakuntza
  - 2 orduko 3 tailer presentzial, non haur eta gazteen arteko gatazkak eta diskriminazio-dinamikak hautemateko eta horiei aurre egiteko tresnak eskaintzen diren. \*Klaustroko gatazken kudeaketa erraztea.\* Aurretik kontsultatu.
- Talde jakin baterako aholkularitza
  - 2 orduko 4 tailer presentzial. Tailer horien bidez, irakasleei lagundu nahi zaie gela jakin batean gatazkak kudeatzen.
- Esku-hartze integrala ikastetxeetan
  - 2 orduko 3 tailer ikasleentzat eta 2 orduko 3 tailer irakasleentzat. Esku-hartze integrala egiten da ikastetxe bateko ikasgelako talde bakoitzean.

Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

## BETIRAKO

### HELBURUA

Doluari nola aurre egin lantzen du, prestakuntza eta sentsibilizazio saioen bidez. Halaber, bizi-hausturak eta galerak nola tratatu irakasten dio hezkuntza-komunitateari. Bere helburua da hezkuntza-zentroetan gerta daitezkeen dolu-prozesuak ezagutaraztea.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Hezkuntza-komunitate osoarentzat da: irakasleak, familiak eta ikasleak.

### JARDUTEKO MODUA (4 TAILER MOTA)

#### Irakasleen prestakuntza

- 2 orduko iraupena duten aurrez aurreko 2 saio.

#### Gainbegiratzea eta laguntza

- Egoera zehatzak lantzerantz bideratutako laguntza profesionalerako gunea, haiek kudeatzeko tresna espezifikoak eskainiz.


#### Familiantzako prestakuntza

- 1,5 orduko iraupena duten aurrez aurreko 2 saio.

#### Ikasleen prestakuntza

- Ordubeteko iraupena duten aurrez aurreko 2 saio.

Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA





# MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN IRAKASTEA



945 064 367/945 064 355



actividades@fundacionvital.eus



**MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN IRAKASTEA**

# CAMINUS HITZALDIAK

## HELBURUA

Zailtasunak gainditzearen garrantziaz kontzientziatzeko programa, bizitzak eskaintzen dituen arazoan aurrean jarrera positiboa hartuz. Gazteak kontzientziatzea desgaitasun bat izateak zer dakarren, edozeini edozein unetan gerta dakiokela eta dibertsitate funtzionala pairatzen duten pertsonak gizarteratzearen garrantziaz

## GOMENDATUTAKO ADINA

Bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat, batxilergokoentzat eta heziketaziklokoentzat.

## JARDUTEKO MODUA

Caminus taldeko kideek emandako ordubeteko hitzaldi atsegingarrien bidez. Solasaldi horietan euren esperientziak eta pasadizoak kontatzen dituzte ikus-entzunezko materialaren laguntzaz. Irisgarritasun unibertsalaren enbaxadoreak dira eta gaixotasun arraroen ikerketa bultzatzeko eta ikusgarritasuna emateko lanean ari dira. Gaztelaniaz.



# CaMinus



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

**AURKIBIDEA**

## AURRERA BEGIRA

### HELBURUA


Erresilientzia lantzeko programa, zailtasunak gainditzen ikasteko, autoestimua sustatzeko eta pertsonalitatea indartzeko aholkuak biltzen dituen gida bati jarraituz.

### GOMENDATUTAKO ADINA

DBHko 4. Mailako ikasleentzat, batxilergokoentzat eta heziketa-ziklokoentzat.

### JARDUTEKO MODUA

Prestakuntza saioak egiten dira Montxo López de Ipiña mendian istripu bat izan ondoren tetraplegia duen ilustratzailearen eskutik. Bere esperientzia kontatzen du hitzaldi, bideo eta marrazkien bitartez. Ondoren, talde-dinamikak egiten dira. Gaztelaniaz edo euskaraz.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

# MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN IRAKASTEA

## AULKIA – BIDEZIDOR IRISGARRIAK



### HELBURUA

Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten haurrek, eragozpena aldi baterakoa edo iraunkorra izan, ikaskideekin mendi-ibiliak eta naturarako irteerak egiteko jardueretan parte hartzeko aukera izan dezatela erraztea, hartara inklusioa, berdintasuna eta beste zenbait balio sustatuko dira, hala nola, enpatia, elkartasuna eta adiskidetasuna.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Arabako lurralde historikoko ikastetxe guztiei zuzendua, eskola-adineko haurrentzat, batez ere Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoentzat.

### JARDUTEKO MODUA

- Vital Fundazioak aulki berezi egokitu bat eskainiko du (mendiko gurrpil bat duen motxila modukoa), eta gidari profesional batek eramango du.
- Ikastetxeek beren eskola-egutegietan sar dezakete jarduera hori, eta naturarako irteera irisgarriak antolatu.
- Mugikortasun urriko ikasleentzako helburu espezifikoak ezarriko dira, taldeko gainerako kideekin batera haien parte-hartze aktiboa sustatzeko.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

**AURKIBIDEA**

# MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN IRAKASTEA

## ZERUERTZ

### HELBURUA

ZERUERTZ proiektuak ikasgelako bizikidetzak lantzeko eta arrazakeria zein xenofobia prebenitzeko proposamen praktikoa eskaintzen du. Bere edukien bidez, migrazio-errealitatera hurbiltzea, aniztasuna aberastasun gisa balioestea eta gorroto-diskurtsoei aurre egiteko tresnak garatzea lantzen dira.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzenduta.

### JARDUTEKO MODUA

Ordubeteko aurrez aurreko 2 saio, interkultura profesional talde batekin. Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

AURKIBIDEA



# HEZKUNTZA DIGITALA



945 064 367/945 064 355



[actividades@fundacionvital.eus](mailto:actividades@fundacionvital.eus)



# HAR EZAZU KONTROLA

### HELBURUA

Teknologia informatikoen (smartphone-ak, bideojokoak, sare sozialak, tabletak, ordenagailuak, adimen artifiziala eta Internet, oro har) erabilera egokiari buruz kontzientziatzeko eta teknologia hori modu kontziente eta seguruan erabiltzeko eta horretan hezteko jarraibideak eskaintzeko programa.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen eta Bigarren Hezkuntza duten ikastetxeetako irakasleentzat eta profesionalentzat.

### JARDUTEKO MODUA

Hitzaldiak eta tailer praktikoak, ordubetekoak.  
Hitzaldiak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA

# RESET ESKOLA

### HELBURUA


Proiektuak baliabideak ematen ditu ikasleak eta familiak teknologia, edukiak, sare sozialak eta bideojokoak arduraz erabiltzeko presta daitezen. Halaber, adin bakoitzera egokitzea proposatzen da mugikorraren entrega eta erabilera, horrek dakartzan arriskuak ezagutaraziz.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Familiei eta eskola-eremu osoari zuzendutako proiektua.

### JARDUTEKO MODUA

Familiantzako, irakasleentzako eta ikasleentzako hitzaldiak antolatuko dira, hezkuntzaren eta prebentzioaren ikuspegitik. Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**



# INGURUMENA



945 064 367/945 064 355



actividades@fundacionvital.eus





# GELA BERDEAK

## HELBURUA

Ikasgela Berdeak Arabako ikastetxeei zuzendutako ingurumen-hezkuntzako doako programa da. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ikasleei modu praktikoan, parte-hartzailean eta haien eguneroko bizitzarekin lotuta hurbiltzea du helburu.

## GOMENDATUTAKO ADINA

2030 Agenda lantzen duten ikastetxeetako ikasle guztientzat.

## JARDUTEKO MODUA

- Programa 45-50 minutuko tailerren bidez garatzen da. Bertan, GJHen inguruko eduki teorikoak eta jarduera praktikoak uztartzen dira.
- Ikastetxe bakoitzak ikasturte bakarra eta GJH zehatz bat lantzen ditu.
- Eskuragarri dauden gaiak honako hauek dira: GJH 7 (energia), GJH 9 (berrikuntza), GJH 12 (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, hondakinei arreta berezia eskainiz) eta GJH 15 (lehorreko ekosistemak).
- Tailerrak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira, eta ingurumen-hezkuntzan espezializatutako profesionalek ematen dituzte.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

# COSMIUN



## HELBURUA

Arabako ikasleei astronomia hurbiltzen die programak, planetario mugikor bati esker. Bertan, ezagutza-iturri itzela den unibertsoaren parte direla jabetuko dira ikasleak, eta hartara, gure lurraldeko hiri-, landako-, paisaia- eta ingurumen-eraldaketako prozesuan modu aktiboan parte har dezakete.

## GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, batez ere.

## JARDUTEKO MODUA

Ordubeteko iraupena duten hitzaldi eta tailerren bidez. Gaztelaniaz eta euskaraz emanten dira eta planetario mugikorra erabiltzen dute. 360 gradukoa da planetarioa, oinarriaren diametroa 6 metrokoa da eta 3 metroko altuera du. Ikastetxeetan bertan instalatzen da, eta azken belaunaldiko material eta tresnak ditu.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**



# ESPAZIOA



## HELBURUA

Antzeri-zinema aitzindari honek txikienezako modu atsegin eta ulergarrian jorratzen dituhonako gai hauek: klima-aldaketa, gerra, pandemia, konfinamendua, krisi ekonomikoa, pantailen kontrolik gabeko erabilera, etab. Gizakiok nor garen eta baikortasuna berreskuratzekozer baloretan oinarritu behar dugun dira hausnarketarako proposatzen dituen gaiak, eta etorkizunari buruzko itxaropen-mezu helarazten du.

## GOMENDATUTAKO ADINA

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat

## JARDUTEKO MODUA

Antzerkia, zinema eta beste diziplina artistiko batzuk uztartzen dituen ikuskizun baten bidez. Antzezpenaren aurretik eta ondoren, ikasgelan gai garrantzitsuenei buruzko jarduera didaktikoak egiten dira, taldeen eskuetan jartzen den material pedagogikoari esker. Antzerkia euskaraz eta gaztelaniaz egin daiteke.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**



# OSASUNA



945 064 367/945 064 355



actividades@fundacionvital.eus



## GOSARI OSASUNGARRIAK

### HELBURUA


Gosariaren eta hamaiketakoaren garrantziaz jabeaztea ikasleak eta otordu orekatu bat osatzen duten elikagaiei buruz informatzea.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

### JARDUTEKO MODUA

40 minutuko iraupena duten hitzaldi eta tailerren bidez. Gaztelaniaz edo euskaraz ematen dituzte, elkargokide diren nutrizionistek. Hezkuntza hitzaldiaren ondoren, ikasleei poltsa bat ematen zaie opari.



KONTSULTATU GURE WEB ORRIA



# EKINTZAILETZA



945 064 367/945 064 355



[actividades@fundacionvital.eus](mailto:actividades@fundacionvital.eus)





## IKAS EKITEN

### HELBURUA

Ekintzailletza balioetan nahiz gaitasunetan hezteko programa, gizarte-partaidetza, ikaskuntza, pentsamendua, lana eta arazoaren ebazpena sustatuz.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat.

### JARDUTEKO MODUA

Miñanon dagoen Arabako Parke Teknologikoaren instalazioetan goiz bateko egonaldiak eginez, ikasleek ekintzailletzaren errealitatea ezagutzen dute, sustatzaileekin tailerrak, hitzaldiak eta ideia-trukeak eginez. Gaztelaniaz edo euskaraz ematen dira.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

## EKITEN IKASTEN

### HELBURUA


Ikasleak enpresa-kudeaketaren arlo estrategikoei buruz modu proaktiboan eta praktikoan hezteko programa, negozio-plan bat garatu, idatzi, azaldu eta defendatzeko tresna nahikoak emanez.

### GOMENDATUTAKO ADINA

Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat.

### JARDUTEKO MODUA

- 1.fasea: enpresa-kudeaketako lau arlo estrategikori buruzko prestakuntza-saioak.
  - 2.fasea: negozio-plana garatzea, idaztea, azaltzea eta defendatzea.
  - 3.fasea: 20 proiektu finalisten amaierako ekitaldi publikoa eta irabazleak hautatzea.
- Tailerrak gaztelaniaz egiten dira eta Ajebaskeko profesionalek ematen dituzte.



**KONTSULTATU GURE WEB ORRIA**

**HEZKUNTZA PROGRAMA  
BERRIAK BIDEAN DIRA...**

**¡ADI EGON!**



# KONTAKTUA

*Vital* FUNDAZIOA



[actividades@fundacionvital.eus](mailto:actividades@fundacionvital.eus)



945 064 367/945 064 355